



4 ATERPEA Ardo dastaketa jardunaldi arrakastatsua

Ehun bat herritarrek parte hartu zuten astearte eta asteazkenean lehenengo ardo dastaketa jardunaldietan. Aterpea Merkatarien elkarteak Lasarte-Oriako Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzaz antolatutako ekintza izan zen. Viña del Mar, Buenetxea, Arkupe eta Lasarte tabernan izan ziren ardo dastaketak. Upeltegietako ordezkari eta herritarrak ere esperientzi ona izan zela azpimarratu zuten. Aterpea pozik da lortutako emaitzarekin.



5 MERKATARITZA Nagusien onerako ekintza Tratu on bat ekimenaren baitan

Lasarte-Oriako Udalak herriko merkatariei nagusiek atsedean hartu dezaten ahulkiak jarri ditzaten gonbidatu die. Proposamen honekin bat egin duen lehena Balerdi harategia izan da. Zerbitzua eskaintzen duela jakina arzteko pegatina batzuk ezariko ditu dendan. Ekimena Tratu on bat markaren baitakoa da eta herriko merkataritza zerbitzua hobetzeko pauso berri bat da.



Lasarte-Oriako Saharako lagunak taldeko kideak, harrera familiak, udal ordezkariak eta lagun bereziak izan ziren Oporrak bakean egitasmoaren aurkezpenean.

Harrera familien bila

Familiak behar dira udan 500 haur saharar kanpamentuetatik ateratzeko

Lasarte-Oriako Saharako Lagunek Udalaren laguntzaz aurten ere Oporrak bakean egitasmoa aurrera eramango dute. Honen bitartez, udan haur sahararrek kanpamentuak uzteko aukera dute. Gure herrian iaz zazpi izan ziren etorri ziren haurrak baina kopuru hau handitu nahi da eta horretarako, harrera familiak behar dituzte.

Lasarte-Oriako Saharako lagunak taldeak aurten Oporrak bakean ekimenari bultzadaxo bat eman nahi dio. Hori dela eta, atzo prentsaurrekoa eskaini zuen udal ordezkari eta hainbat lagunekin batera.

Xedea herritarrek udan etxean haur saharar bat hartzea.

Izan ere, elkarteko kideek azaldu zuten, "badakigu hamar urte bete dituzten 500 bat haurrek oraindik ez dutela kanpamentuetatik ateratzeko

aukerarik izan eta behintzat behin ateratzea da Oporrak bakean proiektuaren helburuetako bat".

Hiru ardatz

Taldeko kideek ekimenaren helburua hiru ardatzetan laburbildu zituzten agerraldian.

"Alde batetik uda gure artean pasatzea benetan langungarria da haien osasunarentzat. Han eskuragarri ez dituzten osasun-azterketak egiten zaizkie hemen; gainera

elikadura osatuagoa eta orekatuagoa eskaini diezaieke gure artean bi hilabete pasatuz gero. Ez hori bakarrik: udan kanpamentuetan tenperatura 50 gradutik gorakoa da askotan, beraz, bizi baldintza gogor horri aldi baterako irtenbidea ematen zaio".

Bestetik haur sahararrak basamortuan dagoen errefuxiatu kanpamentuetan jai direnez, "ez dute ezagutzen beste errealiterik. Gurera etorrita kultura, hizkuntza, balore eta esperientzia berriak bizitzeko aukera ematen diegu haurrei", aipatu zuten.

Azkenik, familiek haur saharar bat hartzean beste kultur bat ezagutzeko aukera dutela azpimarratu dute, "horrekin familia barruan laguntasuna, ezkuzabaltasuna, elkarbizitza eta toleran-

tziaren baloreak sustatzen ditu umeak familiako kide guztien artean".

Elkarteko kideek azaldu dutenez, Gipuzkoan iazko haur kopurua berdintzeko 32 familia behar dira eta arestian aipatu legez, 500 haur ez dira oraindik kanpamentuetatik inoiz atera.

Horregatik, aurten haur saharar bat hartzea animatzen dituzten lasarteoriarrak.

Hitzaldia

Animatu daudenei zuzendutako hitzaldia eskainiko da martxoaren 3an, 18:30ean, Villa Mirentxuko ekitaldi aretoan

Honetan Oporrak bakean proiektuari buruzko azalpenak eskainiko dira, hala nola, laguntzak, Udako Txokoetan haurren parte hartzea edo igariketa ikastaroa.



Astelehenetik
larunbatera
eguerdi eta gauetan
zabalik
(igandea itxita)

Zatoz txotx egitera!

GURUTZETA SAGARDOTEGIA

- > Astelehen, astearte eta ostegunetan menua 22€
- > Asteazkenetan "OTXOTEA"
- > Enkarguz bakailoa saltsan eskatu daiteke



Neure kabuz



Asier Odriozola

Nahia eta ahala

Espainiar estatuan ez dute Elortzen gobernu osatzerik. Milioika lagun desgobernuan bizi da eta aizue, batere arazorik gabe. Italiar esaten da politikariak politikari herritarrek eta berdin enpresek ere bere martxan segitzen dutela: aurrera!!

Elkarri mokoka eta beti sesioan ibiliz lehendik ere txarra zuten irudia lokazten ari dira hautagai ezberdinak. Batzuei asko sumatzen zaie presidente izateko grina. Beste batzuei ere oso nabarmen arerioaren aukerak zapuzteko joera.

Rajoy jaunak hauteskundeak irabazi zituen eta hor dago gizarajoa jokoz kanpo. Bera da inork gobernuan nahi ez duena. Garaipen mingotsa berea!

Sanchez berriz PSOEkin inoiz lortutako emaitzarik eskasena lortu arren presidente izateko ahaleginetan dabil eta dantza horretara Rivera hiritarra (Ciudadanos) biltzea lortu du.

Podemosekoak berriz haserre dabilta eskuartean zuten indarra ez daukatelako erabiltzeko aukera handirik.

Puzlea nahasia da oso eta ematen du hauteskundeak errepikatu egingo dituztela, baina ez noa oso ozen esatera, Katalunian esan bainuen SEGURU hauteskundeak egin beharoko zituztela eta biharamundean Puigdemont presidente izendatu zuten. Igarle bezala etorkizun kaxkarra!!!!

Zorion agurrak



Ibai

Zorionak Pirata!!! Muxu haundi bat eta ondo pasa zure eguna. Askok maite zaitugu crack!



Ane

ZORIONAK waaaa!!! Gozatu zure eguna eta badakizu dirua gorde, afaria zure kontura...



Erik

Zorionak zure urtebetetzeari! Askok maite zaituen familiarekin egun paregabea igaro. Muxuak eta opari politak izan ditzazula!




Aiora

Zorionak lehenengo urtebetetzeari! Txokomarrubizko muxuak familiaren partetik!



Eire

Zorionak printzesa!!! Oso ondo pasa zure 6. urtebetetzeari. Muxu asko familia guztiaren partetik.



Andoni

Zorionak aita, ama eta Oso ondo pasa zure 6. Aroaren partetik. Sei urtebetetzeari. Muxuak.



Sara eta Lorena

Zorionak gure printzesei!!! Oso ondo pasatu zuen 8. urtebetetzeari! Muxu pila bat zure familia eta lagun partetik!



Aimar eta Mertxe

Zorionak Aimar eta amona Mertxe, etxeko guttion partez! Muxu potolo bana.



Udane

Zorionak pirata!!! Txokolatezko zazpi muxu erraldoi gure etxeko marrazkilaririari! Aitaxo, Malen, Jare eta amaxoren partetik.

Azoka txikia

Higiezin Eskaintza

- Garajea saltzen da Andatza plazan, 44 metro karratu. Monobolumen edo furgoneta baten-tzako edo 3 kotxeentzako egokia. 647 737 388.
- Pisua alokairuan Usurbilgo kaxkoan, pisu polita eta argitsua. 2 gela, sukaldea, egongela, komuna eta trastelekua. Altzariz horituta. Tlf: 670070562
- Etxea salgai Cascanten (Nafarroa) nekazal eremuan. 2000 metro karratuko lur eremua. Etxeak 93 metro karratu, 2 gela eta egurrezko berogailudun egongela. Trastelekua. Informazio gehiago, 655738167
- Garaje itxia alokatzen da Andatza plazako sarreran, Sasoeta paseoa. Bi kotxerentzako lekua eta garbitokia. 125 euro hilabetean. Marianengatik galdetu, 685 78 08 57.

Salerosketa

- Bizkien karroa saltzen da. Easy Walker

marka. Erosteko asmoa duenarekin prezioa adostuko da. Harremanetarako, 607 49 06 52. • 'Martins' bota gorriak salgai, 47 neurrikoak. Gutxi erabiltakoak dira; 40 eurotan saltzen ditut. Joseba. 688 659 165/943 36 00 42.

Lan-eskaria

- Pertsona adindua etxean edo erresidentzian zaintzeko prest. Humberto, 631 01 26 30.
- Etxeetan pintura lanak egingo nituzke. Humberto, 631 01 26 30.
- Etxe batean interna edo externa moduan lan egingo nuke. 658 930 235.

Bestelakoak

- Inork baztertua edukiko balu, 8 urteko haur batentzako bateria bat hartuko nuke. 943 36 26 14
- Euskara, ingelesa edo latina irakasten dut, zure etxean bertan. Eskolak indartzeko ere prest. Ekonomikoa. 600 766 068.

Jaiotzak Heriotzak

Jaiotzak

- Oier Salsamendi Artetxe, otsailaren 19an.
- Irene Iñorbe Gilarte, otsailaren 18an.

Heriotzak

- Carmen Lopez Ruiz, otsailaren 23an, 84 urte zituela.
- Josefa Azurmendi Zabaleta, otsailaren 23an, 84 urte zituela.
- Saturnina Ugarte Cincunegi, otsailaren 17an, 77 urte zituela.



Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 19 Gil, Kale Nagusia 24	943 361529
Larunbata, 20 Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567
Igandea, 21 Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567
Astelehena, 22 Gandarias-Urbe, I. de Loyola 9	943 019521
Asteartea, 23 Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652
Asteazkena, 24 De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
Osteguna, 25 Lasa, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774

GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero
Echeveste Elosegui, Elkano 9
Hernani, Tel.: 943 552087

Udalaren telefonoak


Erregistroa	943 371629
Euskarako Zerbitzua	943 376184
Kirolegia	943 376182
Kulturetxea	943 376181
Gizarte Zerbitzuak	943 376179
KIUB	943 361605
Udal euskaltegia	943 361621
Munterri AEK	943 372863

Larrialdi telefonoak

Osasun Zentroa	943 007960
DYA	943 464622
Gurutze Gorria	943 363953
Udaltzainak	943 362442
Ertzaintza	943 288888
SOS Deiak	112

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Laguntzailea



Txintxarri ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 371 448
G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93
ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Nerea Eizaguirre, Martin Vicioso, Iñigo Gonzalez.

txintxarri@txintxarri.eus

Publizitatea: Arantxi Zulaika
publizitatea@ttakun.eus

Laguntzaileak:

Unai Muñoa, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Maider Segurola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz

UDALA

Udalaren lan eta jardueren berri ematen

'Lasarte-Oria Lantzen' aldizkariko zenbaki berria kalean da

**Lasarte-Oriako Udalak bere ekimenak era garde-
nean eraman nahi ditu
aurrera. Hori dela eta,
'Lasarte-Oria Lantzen' udal
aldizkaria erabiliko du,
besteak beste, martxan
jartzen diren lanen eta jar-
dueren berri emateko.
Honetaz gain, aldizkariak
hainbat moldaketa izango
ditu.**

TXINTXARRI

Lasarte-Oria Lantzen' aldizkariaren ale berria iritsi edo iristear da herritarren etxeetara. Jesus Zaballos alkateak aldizkariaren berrikuntzak azaldu zituen astelehenean egindako agerraldian.

Alkateak azaldu moduan, hamaikagarren zenbaki honek udalaren obrei eta jardueri buruzko informazio zehatza jasotzen du.

Lehenik eta behin, udalbatzako zinegotziek, liberatuak izan edo ez, jasotzen dituzten ordainsarien eta udal-taldeei ematen zaizkien diru-kopuru berri ematen du.

Tarte zabalena zerbitzu publikoetan eta obren informazioari dagokio, "8 hilabete hauetan bultzada eman baitzaio kaleen mantenuari eta berrurbanizatzeko lanei".



Jesus Zaballos alkatea aldizkariaren azken alea eskutik ematen duela.

LO UDALA

Aldizkariari bukaera emanez, Udalbatzarrak aldizkariaren itxierako egunera arte hartutako erabaki guztiak eskaintzen dira.

Era berean, aldizkaria argitaratzeak 5.015 eurotako kostua izan duela jakitera eman zuen.

Gardentasunaren bila

Honetaz gain, aldizkariak moldaketa batzuk izango dituela aipatu zuen alkateak.

'Lasarte-Oria Lantzen' sei hilabetekaria izango da,

eta udaleko arlo guztietako informazioa eskainiko du, zehazki haien jarduerari nagusiei eta kanpoko kontratazioei informazioa eskainiko da.

Aipatu zuenez, Udalak martxan dituen proiektu guztien informazioa eta modu aseptikoenean ematen saiatuko da, "nor ari den lan hori aurrera eramaten eta zer kostu duen azalduz".

Helburua informazioa herritarren eskura jartzea da, "gardentasun handiago baten mesedetan".

Piano ikasleak ederki Andoainean

Seiasle elkarteak piano jaialdia antolatzen du urtero Andoainean. Aurten ere, Lasarte-Oriako Udal Musika Eskolako ikasleak bertan izan ziren pasa den asteburuan.

Bastero kulturgunean, guztira, 800 pianojole taularatu ziren. Horien artean hamar lasarteoriatar.

11 urte bitarteko artean, A mailan, Alazne Armendarizek, Haritza Diaz de Gereñuk eta Nacho Fernandezek hartu zuten parte.

B mailan aritu ziren ikasle gehien. 14 urte arteko mailan lehiatu ziren Unax Goenaga, Ainhoa Martin, Leire Martin, Sara Segurado, Aiora Casado eta Leire Diez.

Jaione Martos izan zen 16 urtetik beherako mailan



10 gaztetxo lasarteoriatarrek hartu zuten parte Andoaingo piano jaialdian.

pianoa jo zuen lasarteoriatar bakarra.

Ilusioz

Udal Musika Eskolako ardura-dunek azaldu dute, urtero, Andoaingo jaialdian parte hartzea "ilusio handiz" hartzen

duela eta eguneroko prestaketan "motibazio iturri" dela.

"Lan erantsia" dela onartu dute, baina ikasturtean "ezinbestekoa" bihurtu da jaialdia.

Ikasleek diplomak eta dominak irabazi zituzten egindako lanaren ordainean.

SOLASKIDE

Sagardotegi menua martxoaren 4an

Martxoaren 4an, ostiralean, arratsaldeko 20:00etan Arrieskalleta elkartearen Solaskideen afaria izango da. Oraingo honetan, sagardotegi menu paregabea dastatu ahalgo dute parte hartzen duten mintzalagunek.

Martxoaren 2a baino lehen eman behar dute izena ekimen honetako lagunek. Beti bezala kultura@ttakun.eus helbidean eta 943 37 14 48 edo 695 78 53 89 telefonora deituaz egin daiteke inskripzioa. Azken zenbaki honetara ere, whatsapp mezua bidali daiteke.

SAHARA

Hassan Aaliaren hitzaldia bertan behera gaixotasunagatik

Saharako Lagunak taldeak asteartean Furia Beltza tabernan antolatu zuen hitzaldia bertan behera geratu zen hizlaria Hassan Aalia sahararra gaixo zela eta. Antolatzaileek jakitera eman dutenez, hitzaldia Hassan osatzera arte atzeratuko da. Data zehaztean jakitera emango dute.

Era berean, gogora dakarte, larunbatean Saharar Errepublika Arabiar Demokratiko aldarrikatu zenetik 40 urte beteko direla eta hainbat ekintza antolatu dituztela. SEADeko bandera izango da Udaletxeko balkoian, eguerdian elkarretaratzea Okendo plazan, 11:00etatik 13:00etara Garikoitz Lasa donostiarraren argazki erakusketa ikusgai izango da Antonio Mercero aretoan eta 12:30etik aurrera, dokumental bat eta tea eskainiko dira Elurtza tabernan.

URTEURRENA

Argi eta Iñakiri lore-eskaintza

Igandean, otsailaren 28an, 13 urte beteko dira Argi Iturralde eta Iñakiri Balerdik bizitza galdu zutela semea eta anaia zegoen kartzelarako bidean.

Haien memorian eta beraien heriotza eragin zuen dispersio politika oraindik indarrean dagoela salatuz, Lasarte-Oriako EHBilduk, aurreko urteetan bezala, lore-eskaintza egingo du Askatasunaren Plazako eskulturaren ondoan, goizeko 10:00etan.

Ohar honen bidez, Lasarte-Oriako EHBilduk gonbidapena luzatu nahi die lasarteoriatar guztiei bertan parte hartzeko.



Rosat eta Ruti hirukoaren kontzertua

Atsobakar zahar etxeko Aegoiliarrek eta hauen senideek Rosat eta Ruti hirukoaren musikaz gozatzeko aukera izango dute igandean, 11:00etatik aurrera.

Carlos Rosat flauta jolea, Tomas Ruti Vilar biolin jolea eta Tomas Ruti Parra fagot joleak osatzen dute. Hirurak irakasleak dira, Rosat eta Ruti Parra Euskadiko Orkestra Sinfonikoan eta Ruti Vilar Francisco Escudero Musika Kontserbatorio Profesionalen.

Moldaketak

Hirukoak klasizismoko eta erromantizismoko musikari

handien doinuak hurbilduko dizkiete Atsobakarrek laguneri. Haydn Sol Maiorren musikaz gozatzeko aukera izango dute igandean, 11:00etatik aurrera. Carlos Rosat flauta jolea, Tomas Ruti Vilar biolin jolea eta Tomas Ruti Parra fagot joleak osatzen dute. Hirurak irakasleak dira, Rosat eta Ruti Parra Euskadiko Orkestra Sinfonikoan eta Ruti Vilar Francisco Escudero Musika Kontserbatorio Profesionalen.

Ez da lehen aldia gure herrian hirurek batera jotzen dutena, Danok Kideren Musika Topaketan barruan hainbat alditan parte hartu dute azken urteetan.

Danok Kide elkartearen laguntzaz antolatutako kontzertua da hau.



Viña del Mar tabernan Biasteriko Gomez Segurako upeltegiko ardoa izan zuten dastagai, eta Lasarte tabernan herri bereko Launa.



Buenetxean Leringo Alconde upeltegikoek eman zituzten azalpenak; Arkupen, berriz, Oliteko Marco Real-ekoek.

Ardoak ezagutuz

Jardunaldiek harrera ederra izan zuten

Aterpea Merkataritzak elkarrekin Udalaren laguntzaz, ardo dastaketa jardunaldiak ospatu zituen astearte eta asteazkenean lau tabernetan. Harrera ona izan zuen ekimenak. Ehun bat herritarrek Nafarroako edo Errioxa-ko upeltegietako ardoak ezagutu eta probatzeko aukera izan zuten.

TXINTXARRI

Viña del Mar, Buenetxea, Arkupe eta Lasarte tabernetan ardo dastaketa egiteko aukera izan zuten hainbat herritarrek astearte eta asteazkenean.

Viña del Mar eta Buenetxean izan zen lehen jardunaldia; bigarrena, berriz, Arkupe eta Lasarte tabernetan.

Ardoak ezagutzen

Adi jarraitu zituzten herritarrek upeltegietako ordezkarien azalpenak. Upeltegien historiaren berri izan eta

ardoak nola ekoizten dituzten azaldu zieten.

Honetaz gain, parte hartzaileek ardoen ezaugarriak ezagutu eta hauek bereizten ikasi zuten. Horretarako upeltegietako ardo ezberdinak dastatu ahal izan zituzten, ardo txuria, ondua, gorrixka... eta edariari laguntzeko hizka-mizka ezberdinak izan zituzten.

Harrera ona

Lau tabernetako kideak pozik agertu ziren jardunaldiek izandako harrerarekin.

Herritar ugari hartu zuen parte saio bakoitzean, eta upeltegietako arduradunak

ere gustura agertu ziren lasarte-oriatarrek emandako erantzunarekin.

Asteartean Viña del Mar tabernan Biasteriko Gomez Segura upeltegiko ardo dastatu zuten eta Buenetxean Lerin herriko Alconde upeltegikoa. Asteazkenean Arkupen Oliteko Marco Real izan zuten dastagai eta Lasarten Biasteriko Launa.

Herri gastronomikoa

Lasarte-Oriako Udalak eta Aterpeak aurten martxan jarritako Lasarte-Oria Gastronomikoa proiektuaren baitako ekintza dugu ardo dastaketa.

Horren bitartez, 2016. urtean Lasarte-Oria herria gastronomikoki nabarmentzeko ekimenak egingo dira.

Honetaz gain, Aterpeak aipatu duenez, Eusko Jaurlaritzaren laguntza ere izan dute jardunaldiak aurrera eramateko.

Kubako gaur egungo egoera aztertzen

Lasarte-Oriatik mundura, mundutik Lasarte-Oriara hitzaldi zikloak aste honetan Kuba du protagonista. Herrialde honetako egoera ezagutzeko bi ekintza antolatu dira.

Atzo Kubari buruzko argazki diaporama izan zen. Irati, Ane, Ainhoa eta Urdiñek irlara egindako bidaia azaldu zuten. Kotxez egindako bidai horretan bititako hainbat pasadizo kontatu zituzten eta Xirimirira hurbildu ziren herritarren galderak ere erantzun behar izan zituzten.

Argazkiak ikusteaz gain, saiora hurbildu ziren herritarrek jaki kubatarak dastatze-

ko aukera ere izan zuten erakusketa amaitzean.

Hitzaldia

Bestalde, gaur arratsaldean, 18:30etik aurrera, Manuel Lekuona kultur etxean 'Kuba: kokapen historikoa eta gaur egungo egoera' hitzaldia izango da.

Hitzaldia Luismi Uhartek eskainiko du. Askapeneko brigadista izana da Uharte eta egun EHUko Antropologia eta erakunde bereko 'Hegoa' Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari Buruzko Ikasketen Institutuko irakasle adskribatua da. Latinoamerikari buruzko ikasketetan doktore da eta hainbat lan idatzi ditu.



Aste honetan, Kuba izango da aztertuko den herrialdea. Atzo Irati, Ane, Ainhoa eta Urdiñek irlara egindako bidaiaren berri eman zuten.

Nagusiek atsedeen hartzeko eremuak

Merkataritza guneetan adin nagusikoek atsedeen har dezaten aulkiak jarriko dituzte

Tratu On Bat ekimenaren helburua Lasarte-Oriako merkataritza zerbitzua hobetzea da. Herriko nagusiek ilarak hobeto jasateko helburuarekin aulkiak jartzeko bultzatuko dute herriko saltokietan. Balderdi harategiak, esaterako, bat egin du jadanik egitasmoarekin. Beste merkataritza guneei ere luzatuko zaie gonbidapena gaurtik aurrera.

TXINTXARRI

Ostegun goizean aurkeztu zuten Tratu On Bat ekimenaren barneko egitasmo berria.

Oraingoan Lasarte-Oriako nagusiei zuzendutakoa da. Izan ere, denda eta merkataritza gune asko ez daude haiatzeko egokituak.

Horri aurre egin nahian aurkeztu du egitasmo berria Lasarte-Oriako Udalak Tratu On Bat markak lagunduta.

Merkataritza guneak gonbidatu dituzte euren lokaletan aulki eta eserlekuak jartzera. Hala, ilaretan zutik itxaron beharrean, atsedeen hartzeko lekua edukiko dute.

Pegatina bidezko sistema

Alkate Jesus Maria Zaballosek azaldu duenez, egitasmoarekin bat egiten duten komertzioei pegatina bi emango zaizkio dohainik. Bat kanpoan ipini beharko dute, eta

bestea barnean. Modu honetan, edonork ikus dezake non ezarri den sistema berria. Bai kaletik, baita lokal barnetik ere.

Azaldu dutenez, "Lasarte-Oriako populazioa zaharkitu da, eta haiek egiten dituzte gehienbat erosketak". Beraz, horren ondorioz sortutako erronkei aurre egin behar zaiela uste du alkateak.

Gonbidapena

Balderdi harategian egin zuten atzo aurkezpena. Izan ere, haiek izan dira atxikitzen lehenak.

Harategiko arduradun Juan Bautista "pozik" azaldu da egitasmoan parte hartzeko "aintzat hartu" dituztelako.

Halaber, "nagusien ongizatean laguntzea plazera" dela azpimarratu du.

Hurrengo egunetan Lasarte-Oriako merkataritza gune guztiei luzatuko zaie proiektuan parte hartzeko gonbidapena.



Balderdi harategia izan da egitasmoarekin bat egin duen lehen saltokia.

Zaballosek nabarmendu du "pegatinak Udalak zabalduko dituela" eta, trukean, saltokiek "eserleku edota nagusiek atsedeen egiteko moduko aulkiak" jarri beharko dituztela.

Ahalik eta denda gehienek proiektuarekin bat egitea nahiko luke Udalak. Izan ere, "herritarrek eskatutako" zerbitzua dela ohartarazi dute.

Tratu On Bat

Herriko merkataritza indar-

tzeko helburuarekin sortu zen Tratu On Bat marka.

Egitasmo ugari abian jarri dituzte orain arte. Herriko saltokietan, tabernetan eta beste-lako merkataritza guneetako eskaintzak biltzen dituen webgunea sortu zuten, esaterako.

Bestalde, 'Lasarte-Oria Biziberritzen' ekimena sustatu zuten, hutsik dauden lokalak berpizteko.

Zenbait saltokiek lokal hutsetako erakusleihoak bete-

zituzten euren eskaintzekin. Bi helburuarekin egin zen. Batetik, herriko merkataritza eta zerbitzu guneek euren lana sustatzeko eta, bestetik, urteetan hutsik egon diren lokal horiek txukuntzeko.

Ahal balitz, horietan ere saltoki berriak sortzeko aukera ere bada.

Lasarte-Oriako ekonomia sustatze bidean tresna garrantzitsua da Tratu On Bat, eta aurkeztu berri duten proiektua, urrats berri bat.

Itsaspeko zinema ziklo jendetsuari amaiera uharri artean

Astelehen arratsaldean itxi zituen atea Itsaspeko zinema zikloaren aurtengo edizioak. Kultur etxera gerturatu ziren herritarrek bi emanaldiz gozatu zuten: 'Liquid Mirror' eta 'Uharriak. Bizitza oasia' izenekoak.

Proiektioei ekin aurretik, Danok Kide elkarteko Jesus Mari Egizabalek hartu zuen hitza. Eskerrak eman zizkien herritarrei, otsaileko lehen hiru astelehenetan itsaspeko zinemaz gozatzera joateagatik. Era berean, azpimarratu zuen "aurrekoak baino jendetsuagoa" izan dela aurtengo zikloa. Eta antolatzaileak lanean ari direla jada aurreratu zuen; hasi dira itxura ematen 2017ko edizioari.

Ondoren, Nano Cordovilla Real Sociedad itsaspeko klubeko zuzendariari eman zion mikrofonoa Egizabalek. Asteleheneko bi emanaldiak aurkeztu zituen Cordovillak: 'Liquid Mirror' eta 'Uharriak.

Bizitza oasia' lanak. Bigarrena nabarmendu zuen: "Inoiz egin den dokumental ederrena da; ikusgarriak dira irudiak".

Ozeanoak ezagutzen

Manuel Lekuonara joan zirenek frogatu zuten Cordovilla ez zebilela gezurretan. Lurra planetako ozeano hondoetara bidaiatu zuten, bertako fauna eta flora ikusgarria ezagutuz.

Duela hilabete batzuk, azaroan zehazki, dokumentalaren egileek erabaki zuten itsaspeko zinema jaialdi batean lehenengo aldiz parte hartzea. Donostiako CIMASUBen aurkeztu zuten, emaitza ezin hobearik: lehenengo saria eskuratu zuten. Zinemaren estreinatua zuten ordurako; maiatzaren 21ean hasi ziren aretoetan proiektatzen.

Hori baino lehen, 'Liquid Mirror' lanean, Miguel Lozano apneistarekin egin zuten igerian ikusleek, urpean baita ere. Pasa-



Danok Kide elkarteko Jesus Mari Egizabalek aurtengo edizioa baloratu zuen.

den urtean munduko apnea azpitxapelduna izan zen Lozano. Hiru minutuko laburmetraia horretan itsasoko zenbait animaliarekin batera -izurdeak eta marrazoak, esaterako- egiten du igeri apneistak.

Denera hamabi lan ikusi ahal izan dira aurtengo edizioan. Horien artean, David Sanchez Carretero herritarren 'Motivos para bucear en el Cantábrico'. Euskarazko bat ere eskaini zuten hilaren 15ean. Takeaway Films ekoiztetxearen 'Ruta Molucas' dokumentala.

zerbitzu mistoak

MAiTE

ESTETIKA ARETOA

- Makillajea
- Manikura eta pedicura
- Era ezberdinetako depilazioak
- Befileen permanentea eta tindatzea
- Ultramorerik gabeko beltzarantzea
- Solariuma
- Aurpegi eta gorputzeko tratamenduak

Uistin Kalea z/g • Tel. 943 37 08 45 • Lasarte-Oria

Agenda

Ostirala 26-Igandea 28, Semblante Andaluz



Andaluzia Erkidegoaren eguna

Otsailaren 28an, igandean, Andaluzia Erkidegoko eguna da. Semblante Andaluz elkartearen eskutik Erkidego honetako bizilagunek egun berezi hau ospatu ahalko dute asteburuan zehar.

Ostirala 26

20:00etan, Luntxa eta ohorezko ardo bazkide, udal ordezkari eta lagunei zuzendua.

Larunbata 27

17:30ean, Gitanillos del Alba, Duende

Flamenco, Azabache eta Zambra taldeen dantza ikuskizuna.

19:00etan, Donostiako Guadalupeko Ama Extremadura etxeko abesbatza eta dantza taldearen emanaldia.

20:00etan, Semblante Rociero koruaren saioa.

Igandea 28

11:00etan, meza Semblante Rociero koruak girotua, Arantzazuko Amaren elizan.

14:00etan, udal ordezkari eta gonbidatuei harrera, Andaluziako ereserkia abestea eta herri bazkaria.

19:00etan, Amigos del sur taldearen emanaldia.

19:30ean, dantzaldia.

21:30ean, jaiaren amaiera.

Lasarte-Oria

Lasarte-Oriatik mundura

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Ostirala 26, 18:30ean

Urte askotan Askapeneko brigadista izandako eta EHUKo irakasle den Luis-mi Uhartek 'Kuba: kokapen historikoa eta gaur egungo egoera' hitzaldia eskainiko du.

Saharar Errepublika

ELURTZA TABERNA

Larunbata 27, 12:30ean

Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa aldarrikatu zeneko 40. urterrean, eguerdian Okendo plazan izango den elkarretaratzearen ostean,

Saharari buruzko dokumentala eta tea eskainiko dira.

ANTONIO MERCERO ARETOA

Larunbata 27, 11:00etatik 13:00etara

Garikoitz Lasa donostiarrak errefuxiatu guneetan ateratako irudien erakusketa izango da ikusgai.

Proiektzio digitala

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Larunbata 27, 20:00etan

Puccini konposagilearen hainbat ariaz Jonas Kaufmann tenorearen ahotsean gozatzeko aukera izango da, 'Una noche con Puccini' emanaldiaren proiektio digitalean. Sarrera, 9 euro. Aurrezalmenta, 7,5 euro.

Bertso Afaria

XIRIMIRI ELKARTEA

Larunbata 27, 21:00etan

Bertso Afari Literarioa Ane Labaka, Maialen Lujanbio eta Unai Iturriagaren eskutik. Gai jartzaile, Danele Sarruigarte. Antolatzailea Irakurle txokoa.

Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Igandea 28, 17:00etan

Haurrentzako zinea atalean, 'Alvin y las ardilla: Fiesta sobre ruedas' animaziozko filma ikusgai izango da. Sarrera, 3,80 euro.

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Igandea 28, 19:30ean

Helduentzako zinea atalean, 'El renaci-

do' filma ikusteko aukera izango da. Sarrera, 5,50 euro.

Musika

ATSOBAKAR ZAHAR ETXEAN

Igandea 28, 11:00etan

Danok Kide elkarteak antolatuta, Rosat eta Ruti hirukoaren kontzertua. Egoilar eta hauen senideei zuzendutako ekintza.

Erakusketa

JALGI KAFE ANTZOKIAN

Otsailean zehar

Arantza Agirre segurarraren olio lanak ikusgai izango dira. Teknika ezberdinekin margotutako lanak dira erakusketan aurkeztutakoak.

Herritarren txokoa

Odol-ateratzea

Hilabeteko azken astelehenean otsailaren 29an, eman ahal izango da odola Osasun Zentroan, arratsaldeko 17:30etik 20:30era.

Anima zaitetze, odola ordezkazina da eta odol falta dago!

Barrikotea Udaberri elkartearen

Udaberri Andantza elkarteak martxoaren 4an barrikotea antolatu du. Parte hartu nahi duenak jar dadila elkartearekin harremanetan. Bazkide eta hauen lagunei zuzendutako ekintza da.

Biyak Bat bidaiak

Biyak-Bat jubilatuen etxeak Sevilla eta Cacereserako bidaiak antolatu du maiatzaren 20tik 29ra.

Hilabete bereko 27tik ekainaren 5era antolatuta zen beste bat, baina autobusa bete da dagoeneko.

Interesatuak izena eman beharko dute asteleheneetik ostiralera 10:30etatik 12:30etara.

Kartetan jolasteko taldea

Emakume heldu bati larunbata arratsaldetan kartetan (mus, truke...) jolasteko taldea sortzea gustatuko litzaioke. Interesa duena jar dadila harremanetan honako telefono zenbakian 21:30ak baino lehen: 943 36 33 71, Ana.

Sarean

Susa argitaletxearen liburuak sarean eskura

Susa argitaletxeak bere web orrialdea berritu du eta 1983tik gaur arte plazaratutako 300 literatur liburu jarri ditu osorik on-line irakurleen eskura.

Literatur egitasmobaten inguruan sortu zen Susa argitaletxea 1983 urtean. Lehen liburua, Xabier Montoiaren 'Anfetamiñak' poesia liburua izan zen. Urte hauetan guztietan, 325 titulu argitaratu ditu argitaletxeak. Azkenetakoa, Harkaitz Canoren 'Beti oporretan' narrazio bilduma. Honi lotuta, urtarilaren 25ean idazleari egindako elkarrizketa argitaratu genuen.

Hiru hamarkadetan batutako liburu horietatik 300 inguru doan jarri ditu argitaletxeak irakurleek osorik eskura ditzaten. Poemak, saiakerak, antzerkiak, ipuinak, nobelak... 159 idazleren lanak irakurtzeko aukera dago. Argitaletxeak dioenez, "liburutegi ireki" izaera areagotu dute.

Honetaz gain, osagarriak ere aurki daitezke webgune berri honetan. Idazleen informazioa, liburuen kritikak, liburuak on-line erosteko aukera, baita audioak ere. Hala nola, Gabriel Arestik 1964 eta 1966 urteetan 'Harri eta herri' eta 'Euskal Harria' liburuetako poemekin egindako grabaketa aurki daiteke.



Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:

Geltoki kalea, 4 943 37 14 48

txintxarri@txintxarri.eus

Iñigo Suberbiola Medikua eta OEITko kidea

“Gure osasuna da lehentasuna”

Erraustegi batetik gertu bizitzeak minbizia pairatzeko aukerak areagotzen ditu, OEITren aburuz

Zubietako errauste plantaren proiektua mahai gainera atera da berriro, Gipuzkoako Foru Aldundiak adierazi duelako eraiki egin nahi duela. Proiektuaren inguruko kezka nagusienetako bat osasunean eragin ditzakeen kalteak dira; hori ikertzen du OEITk, 25 bat medikug osatutako taldeak. Indarra hartu dute berriro; ikerketa lan bat plazaratu berri dute, eta baita moratoria eskatu ere.

IÑIGO GONZALEZ

Arduraren printzipioak dio ez dela erabili behar metodo bat baldin eta uste bada kalteak eragiten dituela edo sor ditzakeela. OEITk kontzeptu hori Zubietan eraiki asmo duen errauste plantan aplikatzea galdegin dio Gipuzkoako Foru Aldundiari.

Nazioarteko hainbat ikerketa –2004 eta 2015 urte bitartekoak– aztertu ostean egin dute eskakizuna, eta ondorio ugari ere atera dituzte, honako hau tarteko: estatistikoki, minbizia pairatzeko aukera gehiago dituzte errauste planta batetik hurbil bizi direnek –bost-hamar kilometroko erradioan–, urrunago daudenek baino. Gure herria erradio horretan dago.

OEITko kideetako bat da Iñigo Suberbiola (Lasarte-Oria, 1975), 2004. urtetik. Aire Garbia plataformak antolatuta, hitzaldia eman zuen asteazkenean, Manuel Lekuona kultur etxean, Maialen Berridi medikuarekin batera. ‘Errausketa eta osasuna’ zuen izenburu ekitaldiak. Herri-tarrarekin hitz egin dugu bi hitz horien loturari buruz.

2004az geroztik ari zarete ikertzen errauste planta batek osasunean sor ditzakeen arazoeng inguruan. Aurten aurkeztu duzue zuen azterketa berriena. Zertan da?

Berrikusi ditugu errausketa eta osasuna jorratzen dituzten ikerketak, azken hamarkadakoak. Eskuratu ahal izan ditugun guztiak irakurri ditugu. Gero, horietako batzuk erabili ditugu ondorioak ateratzeko, gure iritziz oinarri zientifiko kalitatezkoenak dituztenak.

Irizpide jakin batzuk ezarri ostean pasa dugu galbahea. Populazio nukleo handienak ikertzen dituztenak dira onenak gure ustez, akats-tartea murriztu egiten baita. Beste puntu bat ere funtsezkoa da guretzat: ikerlariak adieraztea nahi izan dutelako burutu dutela azterketa, ez enpresa, udal edo besteren batek eskatu dielako. Beste era batera esanda, aintzat hartu ditugu zehazten dutenak ez dela egon interes gatazkarik. Horrez gain, minbizia ikertzen duten erakunde internazionalak gomendatu moduan, beharrez-

koa da gutxienez hamar urtez azterzea errauste planta batetik gertu bizitzeak nola eragin dezakeen osasunean.

Berrikusi dituzuen ikerketak horiek zer diote? Nola eragiten du erraustegi batetik gertu bizitzeak gure osasunean?

Aztertu ditugunetako bat izan da Carlos III.a unibertsitateak egindakoa. Herri bakoitzeko minbizia tasen berri eman zuen, 1997tik 2006ra arteko datuak bilduta. Behatu zituzten 33 tumore mota, eta ikusi zuten errauste planta batetik bost kilometro baino gutxiagora bizi ziren pertsonen tasak altuagoak zirela, minbizia mota zehatz batzuenak bereziki: biriketakoa, behazunakoa, pleurakoa edota sabelekakoa, baita ‘Ez Hodgking’ izeneko linfoma ere.

Beste batean ikertu da hiri hondakinak errausteak zer nola eragina izan dezakeen haur jaioberri eta haurdun dauden emakumeengan. Horietan ere aipatzen dira hainbat gaitz: sortzetiko malformazioak, abortua izateko probabilitatearen igoera, erbi-ezpainak, eta abar.

Beste hainbat gaitz ere eragiten ditu, irakurri ditugun ikerketetan jasotzen denez; eritasun kardiobaskularrak, kasurako.



Iñigo Suberbiola medikua eta OEITko kidea, asteazkeneko hitzaldian zehar azalpenak ematen.

Zerk eragiten du gaitz horiek sortzeko aukerak igotzea?

Hiri hondakinak erretzen dituzten errauste plantek atmosferara igortzen dituzten isuriek.

Metal astunak dira horietako asko: arsenioa, kadmioa, beruna, merkurioa... Hainbat arazo eragin ditzakete horiek. Bestalde, mikropartikulak ere isurtzen dituzte. Errausketaren aldekoek diote gaur egungo filtroei esker asko murriztu dela airera doazen mikropartikulen kopurua, baina ikerketa berriek erakusten dute balore horiek ez direla aldatu; orain dela urte batzuetako maila berean dihardute.

Badaude gas toxiko batzuk ere, gizartean ezagunagoak direnak seguru asko: dioxinak eta furanoak. Gas horiek maila han-

ditan isurtzen dituzte errauste planta urbanoek. Oso kaltegarriak dira gizakientzako; gorputzak denbora asko behar izaten du horiek deusezteko.

Bizkaiko Zabalgarbi erraustegiak lau urte daramatza martxan. Ikertu al da planta horri buruz urteotan?

EHuko ikerlari talde batek egin zuen bat 2014an, Zabalgarbi ireki eta hiru urtera, Bilboko Udalaren enkarguz. Erraustegi eta osasun arazoeng artean ez zuten harremanik ikusi, baina lan hori ez zen beste batzuk bezain fidagarria guretzat, arestian aipatutako irizpide horietako batzuk ez zituelako betetzen. Esaterako, laburra izan zen behaketa denbora; egileek onar-

tu zuten ikerketa gehiago egin beharko lituzketela.

Berriki eman duzue prentsaurreko bat. Ardura printzipioa ezartzeko eskatu diozue Gipuzkoako Foru Aldundiari.

Ardura printzipioa 1998an sinatu zuen Eusko Jaurlari-tzak. Kontzeptuak dio metodo bat ez dela erabili behar, uste bada horrek kalteak eragiten dituela edo sor ditzakeela.

Egin dugun ikerketa lanaren ondoren, ondorioztatu dugu errauste plantak arazoak sortzen dituela osasunean. Ikuspuntu medikotik, dioguna da hondakinak erretzea ez den aukera osasungarriago baten alde egin behar dugula. Gure lana ez da baloratzea sistema bat edo beste hobe den. Dimentsio honetako erabaki bat hartzerakoan, gure osasuna izan behar da lehentasuna, OEITko kideon iritziz.

Erakundeekin harremanik eduki al duzue urteotan?

Lanean hasi ginenean, 2004. urtean, orduko Arartekoarekin, Iñigo Lamarkarekin bildu ginen. Hark bakarrik onartu zuen gurekin batera esertzea. Guk ermandako dokumentuak hartu zituen, ez dakigu irakurri dituzten ala ez.

Etorkizun hurbilean alderdi politiko guztiekin biltzeko asmoa ere badugu.

Herritarrak behintzat gero eta kontzientziatuago daudela dirudi.

Orain dela bost urte hitzaldi bat eman nuen, eta lau katu ginen. Aurrekoan, areto osoa bete zen. Horrekin ulertzen dut jendeak gero eta interes gehiago duela gaiarekiko. Informazioa biltzen jarraitu behar dute, iturri desberdinak kontrastatzen eta gaiari buruzko iritzia ematen.

Zubietara martxa igandean

Gipuzkoako Foru Aldundiak Zubietan eraiki nahi du errauste planta. Aire Garbia plataformak martxa antolatu du igande honetarako: erraustegia eraikitzeke lanak hasi zituzten lur-eremura –Letabidera– joango dira. 10:30ean jarri dute hitzordua, Okendo plazan. Herritarrak bertan parte hartzera gonbidatu zituzten asteazkeneko hitzaldia hasi aurretik.

Eskualdeko hainbat herritako errausketaren kontrako mugimenduek ere egingo dute martxa. Hortaz, edonondik abiatzen direla ere, eguerdiko hamabiak aldera iritsiko dira denak Letabidera. ‘Burua duenak ez du errauste plantarik nahi bere herrian, eta bihotza duenak ez du beste inoren



Kultur etxeko hitzaldi aretoa lepo egon zen asteazken arratsaldeko ekitaldian.

herrian nahi’ da martxaren filosofia, antolatzaileen esanetan.

Hitzaldi jendetsua

Pertsona bakar bat gehiago ere ez zen kabitzen asteazken arratsaldean, Manuel Lekuona kultur etxeko hitzaldi aretoan.

‘Errausketa eta osasuna’ hitzaldia eskaini zuten OEITko kide Iñigo Suberbiolak eta Maialen Berridik. Bi hitz horien arteko loturari buruz aritu ziren.

Amaieran, herritarrek euren galdera eta kezkek partekatut zituzten hizlariekin.